

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 350/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Behin betiko onespena ematea Legutioko ondasun higiezin gaineko zergari lotutako hiri lurzorua mugatzeko aldaketa partzialari

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 3ko 259/2022 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen ondasun higiezin zergari loturiko Legutioko udalerriko hiri lurzoruaren mugaketa, zeina azken urteetan onetsitako arau subsidiarioetan egindako hainbat aldaketa puntual jasotzeko egin baita.

Aurreko hori gorabehera, egiaztatu da mugaketa hori zuzendu beharra dagoela Urrunagako herrigunean dagoen 1 poligonoko 670 A lurzatiaren inguruan, haren egoera behar bezala jasotzeko.

Horregatik, lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea, honekin batera doan planoaren arabera, ondasun higiezin gaineko zergari lotutako Legutioko udalerriko hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa, Urrunagako herrigunean dagoen lurzati jakin baten (1 poligonoko 670 A) egoera zuzentzeko egina.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan eduki behar da Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezin gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategineko 3. artikuluko 2.b) apartatuan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn eta lurralde historikoko egunkari salduenetan argitaratuko da. Gainera, jendaurrean jarriko da 15 egunez, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak jar ditzaten. Agiria Legutioko Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezin Gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginak, 11. artikulua 5. apartatuan, eta ondorengo arau garapenak, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuz, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 14a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
M^a JOSÉ PEREA URTEAGA